



Gizarte-diagnostikoa egiteko eta bazterkeria ebaluatzeko baliabide bateratuak

TERMINOLOGIA ETA IRIZPIDEAK

Gizarte-arloa

16. ALDERDIA.- GIZARTE-ONARPENA ETA KOMUNITATEKO EGUNEROKO BIZIKIDETZA.

Helburua da alderdi hauek ebaluatzea: bat, gizabanakoak gizarte-harremanetan dituen zailtasunak; bi, bizilekuko gizarte-ingurunean bizi duen egoera; eta hiru, inguruneak gizabanakoari begira duen jarrera.

Gizabanakoaren inguruko pertsonen eta taldeen onarpen- edo gaitzespen-mailaz ari garenean, edozein motatako ekintzetan eta jardueretan parte hartzen duenean eta gizarte-babeserako sistemen zerbitzuak edo prestazioak behar dituztenean gizabanakoak duen onarpen- edo gaitzespen-mailaz ari gara.

16.1. adierazlea.- Komunitateko eguneroko bizikidetzak.

Gizabanakoaren bizikidetzak ebaluatuko dugu; hau da, zer-nolako harremanak dituen besteekin, baliabideekin, instalazioekin, zerbitzuekin eta abarrekin. Hiru egoera hauetakoren batean egon daiteke:

Ingurukoek onartzen dute.

Gizarte-eskubide orokorrak libreki baliatu ditzake (parte hartzeko eskubidea eta adierazpen-askatasuna barne). Ez da bazterkeriaren biktima, eta ez du bere burua hala ikusten. Lan-munduan, ikasketetan eta komunitatean, erraz onartzen dute. Gerta daiteke talde estigmatizatu bateko kidea izatea.

Hainbat zailtasun ditu, ingurukoek baztertu egiten dute eta.

Gaitzespen pasiboa jasotzen du; hau da, ingurukoek saihestu egiten dute, indarkeriarik gabe baina. Bazterkeriaren biktima da; ez dute aise onartzen. Horrek esan nahi du agian ezin dituela gizarte-eskubide orokorrak baldintza beretan baliatu.

Arazoak ditu, ingurukoek baztertu egiten dute eta.

Gaitzespen aktiboa jasotzen du, eta hitzezko zein hitzik gabeko jokabide oldarkorren biktima da. Gaitzespen horrek eragin handia du gizabanakoaren bizitzako arlo guztietan: lanean, eskolan, harreman informaletan... Presioa, debekua edo hertsapen kolektiboa edo normatiboa dela eta, ezin ditu gizarte-eskubide orokorrak baldintza beretan baliatu: bazterkeria- edo desberdintasun-egoeran dago. Funtsean, irizpidea aurreko aukeraren antzekoa da: alde nagusia da aukera honetan gizabanakoak gaitzespen aktiboa jasotzen duela; hau da, liskarren, irainen eta erasoaren biktima da, inork ez dio etxebizitzarik alokatu nahi, ez diote hainbat lekutan sartzen uzten...

16.2. adierazlea.- Gizarte-onarpena eta estigmatizazioa komunitatean.

Hau da: herritarren zati batek ez onartzea kolektibo jakin baten balio, arau eta ohitura batzuk.

Gaitzespenak eta estigmatizazioak eragotzi egiten dute gizartean eta erakundeetan parte hartzea; halaber, gizarte-harremanak ahultzen dituzte, eta gizarte-bazterkeria bultzatzen. (Subirats, 2005)

Gizarte-zerbitzuen arloko profesionalak eman beharko dute gaitzespen-gertakarien berri. Gizabanakoak berretsi egin beharko ditu gertakari horiek.

- Bertako gizarteak onartu egiten du. Kolektibo edo talde ez-estigmatizatu bateko kide da.
- Kolektibo edo talde estigmatizatu bateko kide da. Ez dute kolektibo edo talde horretako kide izateko hartzen. Bertako gizarteak gutxi onartzen du. Balizko egoera:
 - Talde estigmatizatu bateko kide da, baina horrek, batzuetan, ez dio ondorio txarrik ekartzen.
- Kolektibo edo talde estigmatizatu bateko kide da. Kolektibo edo talde horretako kide izateko hartzen dute. Gizarteak gutxi onartzen du, edo ez du batere onartzen. Balizko egoerak:

Hona hemen 2 eta 3 erantzunei lotutako zerrenda, zeinak estigmatizazioa dakarten hainbat egoera jasotzen baititu:

- Bertako gizarteak ez du onartzen haren jokabide-eredua.
 - Familia-disfuntzionaltasuna: bortiztat edo gatazkatsutat jotzen diren familiak; delitugintzan eta drogen salmentan-eta aritzen diren familiak; babesik eta laguntzarik ematen ez duten familiak (abusuak gertatzen dira, familiakide batek eragotzi egiten ditu familiakideen arteko harremanak eta laguntza, etxeko indarkeria gertatzen da...).
 - Institutuzionalismoa: espetxean, babes-zentroetan, osasun mentaleko ospitaleetan eta halako instituzioetan denbora luzea igaro duten pertsonak.
 - Toxikomania.
 - Beste mendetasun batzuk: ludopatía edo beste mendetasun-jokabide batzuk.
 - Prostituzioa.
 - Delitugintza.
 - Askatasunik ez duten edo izan ez duten pertsonak.
- Gizarte-gaitzespena: immigrazioa gaitzestea eta arrazakeria.
 - Etnia-aniztasuna.
 - Kultura- eta erlijio-aniztasuna.
 - Immigrazioa.
- Gizarte-gaitzespena: adinagatiko eta generoagatiko bereizkeria.
 - Adinagatiko bereizkeria.
 - Generoagatiko bereizkeria.
 - Sexu-aukeragatiko edo -joeragatiko bereizkeria: transexualitatea, transgenerismoa eta trabestismoa.
- Gizarte-gaitzespena: bizikidetzak-moduak, harreman-motak, osasun-egoerak.
 - Gaixotasun estigmatizatuak: HIESa, buruko gaixotasunak.
 - Desgaitasuna.
 - Pasadizokoak, eskaleak.
 - Sexu-aukera edo -joera.
 - Bestelako bizimodu batzuk: okupak, esate baterako.

17. ADIERAZLEA.- ARAUZKO GIZARTE-INGURUNERA EGOKITZEA.

17.1. adierazlea.- Jokabideak arauzko gizarte-ingurunera egokitzea. Gaur egungo egoera.

Gehiengoak onartzen duen bizimoduaz ari gara. Gizabanakoen jokabideak aztertuko ditugu, gizartean nagusi diren jokabideetara egokitzen diren ikusteko (jokabide horiek zigor-zuzenbidean daude jasota). Gerta daiteke gizabanakoek beren irizpideei eustea —hots, erlijio-sinismenen, politikaren, kulturaren, etniaren, sexuaren eta abarren arloko irizpideei eustea— baina jokabidea bizilekuko gizartera egokitzea.

DENBORA-IRIZPIDEA: Duela urtebete hasi eta ebaluazioa egin arteko aldia.

Gizarte-jokabide egokiak.

Jokabidea modu onargarrian egokitzen du bizilekuko gizartearen gehiengoak onartzen duen bizimodura. Halaber, prest dago bizilekuko gizartean parte hartzeko, bai eta modu aktiboan parte hartzeko ere.

Gizarte-jokabide arazotsuak edo ezegokiak.

Gatazka-jokabideak eta -jarrerak ditu, indarkeria erabiltzen du, arauak hausten ditu...

Delitugintza; hutsegiteak edo/eta delituak egitea.

Erantzun hau aukeratzeko, ezinbestekoa da epai judizial batek gizabanakoa errunduntzat jotzea.

17.2. adierazlea.- Jokabideak gizarte-ingurunera egokitzea. Azken 5 urteak.

Hemen ere, gizabanakoaren jokabideak aztertuko ditugu, egokitzen diren ala ez ikusteko. Dena den, azterketa egin aurreko 5 urteak hartuko ditugu kontuan.

Gizarte-jokabide egokiak.

Gizarte-jokabide arazotsuak edo ezegokiak.

Delitugintza; hutsegiteak edo/eta delituak egitea.

18. ALDERDIA.- GIZARTE-HARREMANAK IZATEA ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEA.

18.1. adierazlea.- Gizarte-harremanak eta gizarte-bizitza garatzearekin lotutako jarduerak.

Auzokideekin, senideekin, adiskideekin, ezagunekin, berak bezala zerbitzu jakin batzuk erabiltzen dituztenekin eta abarrekin egiten dituen jardueraz ari gara.

Gizarte-harremanak izatea are garrantzitsuagoa izango da, baldin eta gizarte-harremanik ez izateak bakartze soziala badakar eta bizilekuko gizartean normal bizi ahal izatea eragozten badu.

Parte hartzea lagungarria da pertsonen arteko harremanak eta gizarte-harremanak garatzeko. Dena den, harreman horiek aztertzean, kontuan hartu behar dugu gizabanakoak berak erabaki behar duela halako harremanak izan nahi dituela eta gizartean parte hartu nahi duela. Alde horretatik, aukera hori estuki lotuta dago gizabanakoaren ahalmen eta gaitasun pertsonalekin eta gizarte-abileziekin.

Zer-nolako egoera bizi duen, gizabanakoak aukera bat markatu beharko du, eta, gero, egoki deritzan xehetasunak eman, behean agertzen den zerrendan.

- Jarduerak egiten ditu gizarte-bizitza garatzeko.**
Jarduerak aldizka-aldizka egiten ditu, edo egunero.
- Jarduera gutxi egiten ditu gizarte-bizitza garatzeko.**
Jarduerak oso noizean behin egiten ditu.
- Ez du jarduerarik egiten gizarte-bizitza garatzeko.**

JARDUERAK (1 eta 2 aukerak):

- Kalera irten paseatzera, erosketak egin, kartetan jokatu, telebistan kirolak ikusi...
- Kopak hartzera, bazkaltzera eta afaltzera joan, baxoerdiak hartzen ibili...
- Etxean, lagunekin-eta bildu eta otorduak egin.
- Kirola egin.
- Kirol-ikuskizunetara joan.
- Kultura-ekintzetan parte hartu.
- Bidaiak eta ibilaldiak egin.
- Erljio-kultuetan parte hartu.
- Gizarte-ekintzetan parte hartu.
- Adingabeentzako hezkuntza-zentroek antolatutako ekitaldietan parte hartu.
- Profesionalentzako ekitaldietan parte hartu.
- Jarduera politikoetan eta sindikaletan parte hartu.
- Internet bidez komunikatu (txatean jardun; wap, twiter, Facebook).

18.2. adierazlea.- Gizarte-harremanak eta gizarte-bizitza garatzearekin lotutako jarduerak: azken hiru urteak.

- Jarduerak egin ditu, bai eta aldizka egin ere.**
Jarduerak aldizka-aldizka egin ditu, edo egunero.
- Jarduera gutxi egin ditu.**
Jarduerak oso noizean behin egin ditu.
- Ez du jarduerarik egin gizarte-bizitza garatzeko.**

Lehenengo bi aukeretan, aurreko adierazlean jasotako zerrenda bera erabiliko dugu.

18.3. adierazlea.- Gizarte-harremanak eta gizarte-bizitza garatze aldera azken urtean sare formaletan egindako jarduerak.

- Jarduerak egin ditu sare formaletan.**
Aldizka-aldizka edo egunero.
- Jarduera gutxi egin ditu.**
Oso noizbehinka.
- Ez du jarduerarik egin.**

SARE FORMALATAN EGINDAKO JARDUERAK:

- Autolaguntzarako taldeak.
- Lanbide-heziketako ikastaroak eta lantegiak.
- Aisialdiko kultura-jarduerak, erakunde publikoek eta pribatuek antolatutakoak.
- Osasun-prebentziorako jarduerak.
- Egoitza-zerbitzuetako bizilagunen arteko harremanak lantzeko jarduerak.
- Egoitza-zerbitzuetan komunitateko kideen arteko harremanak lantzeko jarduerak.
- Egoitza-zerbitzuetan egindako aisialdi-jarduerak.

18.4. adierazlea.- Beste pertsona batzuei gizarte-laguntza emateko jarduerak.

Adiskideei, auzokoei eta beste pertsona batzuei laguntza ematen die, hala nahi duelako —erakunderen bat tarteko izan gabe—, edo boluntario-lanetan aritzen da.

- Gizarte-laguntza emateko jarduerak egiten ditu, bai eta aldizka egin ere.**
- Noizean behin egiten ditu.**
- Ez ditu egiten.**

18.5. adierazlea.- Gizarte-sare informaletan parte hartzea eta gizarte-harremanak izatea.

Familiatik kanpoko pertsonekin, hots, adiskideekin, auzokoekin, lankideekin eta halakoekin, dituen harremanez ari gara.

- Hainbat saretan parte hartzen du.**
- Sare gutxitan parte hartzen du.**
- Ez du sare informaletan parte hartzen. Bakarrik egiten ditu jarduerak.**

SARE INFORMALETAKO KIDEAK:

- lagunak.
- familiaren lagunak.
- ezagunak.
- lagun-taldeko kideak.
- lankideak.
- ikaskideak.
- auzokideak.
- jolas-jardueretako kideak.
- Internet bidez ezagututako pertsonak.
- beste talde batzuen bidez (erlijio-taldeak, boluntarioak, etab.) ezagututako pertsonak.

18.6. adierazlea.- Komunitatean bertakotzea.

Komunitatearen parte da, eta lotura afektiboak ditu komunitatearekin.

- Bertakotuta dago, eta komunitatearekin harremanetan dago etengabe.**
 - Gutxi bertakotu da.**
 - Ez da bertakotu, eta ez dago komunitatearekin etengabe harremanetan.**
- Arrazoiak:**

- Immigrazioa.**
- Emigrante gisa itzuli izana.**
- Espetxean edo bestelako zentzoren batean egon izana.**
Espetxean, adingabeentzako babes- edo erreforma-zentro batean, osasun mentalerako arreta-zentro batean, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako babes-zentro batean...
- Behar adina autonomia organiko eta funtzional ez izatea.**
- Gizarte-fobiak izatea.**
Gizarte-fobia duenak lotsa handia izaten du: beldur eta estutasun handia eta etengabea izaten du, gizarte-egoera batzuei aurre egiteko, besteekin harremanak egiteko edo, besterik gabe, behatua izateko. Beldur horrek eragin handia du gizabanakoaren eguneroko bizitzan.
- Bestelako egoera batzuk.**
Etxebizitza egonkor bat ez izatea; senideekin, lanarekin eta gizartearekin luzaroan loturarik ez izana; harreman normalak izateko erreferentziak galdu izana... Inguruabar horien xehetasunak baliabide bateratu hauen beste atal batean jasoko ditugu.

18.7. adierazlea.- Harremanak eta gizarte-bizitza izateko premia: gogobetetasuna.

Ez dugu aztertuko ea gizarte-laguntza jasotzen duen, baizik eta ea gizarte-bizitza duen eta ea komunitatean parte hartzen duen.

- Ez dago gizartetik bakartuta.**
Lotura aktiboa du gizarte- eta familia-sareekin.
- Gizarte-sareak ahuldu egin dira.**
Gizarte- eta familia-sareetatik urruntzen ari da. Sare horiek txikiak eta ahulak dira. Ahultzearen arrazoiak:
 - Iraganeko adiskideak. Iraganeko adiskideekin-eta duen lotura ahultzen ari da, eta, horren ondorioz, lanari, ikasketei, komunitateari edo auzoari lotutako sareak txikitzen ari dira.
 - Mugikortasun-zailtasunak.
 - Komunikatzeko zailtasunak.
 - Ez du astirik gizarte-sareak lantzeko. Esate baterako, familia-zama handia duten emakumeak.
 - Senitartekoekin soilik jarduten da, baina ez dago bakartuta. Agian, senitartekoek gehiegi kontrolatzen dute, edo aspalditik langabea da eta senitartekoekin harreman gutxi ditu.
 - Senitartekoekin soilik ibiltzen da, etxeko indarkeriaren biktima da eta. Hainbat egoera gerta daitezke:
 - Emakumeak: bikotekideak dena kontrolatzen du, hots, emakumearen harremanak, joan-etorriak, bikote-harremana eta etxetik kanpoko konpromisoak, eta, halaber, jeloskortasuna erabiltzen du bere ekintzak justifikatzeko. Ehunekoa txikiagoa bada ere, kasu batzuetan, gizonak jasotzen ditu tratu txarrak. Biktima gizona edo emakumea izan, berdin aztertuko dugu kasua.
 - Etxeko indarkeriaren biktima diren adinekoak edo mendetasuna duten pertsonak. Bakartuta daude, eta luze egoten dira bakarrik. Telefonoa erabiltzea eta bisitariak izatea galarazten diete, bai eta etxetik irtetea ere. Mehatxu egiten diete egoera sala ez dezaten.

- Sexu bereko bikoteak: lehenengo kasuaren antzekoa da egoera. Horretaz gainera, erasotzaileak mehatxu egiten du, bikotekidea homosexuala dela jakinaraziko duela lanean edo beste eremu batzuetan.
- Antzeko ezaugarriak dituzten taldeekin ibiltzen da. Talde horiek gutxi integratzen dira komunitatean.
 - Ezagunekin edo adiskideekin ibiltzen da. Egoera hauetakoren bat dela bide ezagutzen dute elkar: erakundeetan elkarrekin bizi izan dira, etorkinak dira, etnia bereko kideak dira, toxikomania bera dute...
 - Sare horietako kide izateak eragotzi egiten du komunitateko baldintzak erabili ahal izatea, sare horiek baztertuta baitaude.
 - Etorkin iritsi berriak: egoera irregularrean daude edo ez dakite bertako hizkuntza, eta gizartean estigmatizatuak izateko arriskua dute.
 - Gutxiengo etniko baztertuak.
- Talde marjinalekin eta izaera sektarioa duten taldeekin soilik ibiltzen da. Talde horiek oso gutxi integratzen dira komunitatean, edo batere ez.

Gizarte-sare baztertuetan ibiltzen da. Sare horietan, debekatutako substantziak kontsumitzen dituzte, delitugintzan aritzen dira edo legez kanpoko enpleguak dituzte:

 - Ikasketak utzi eta delitugintzan aritzen diren taldeetan sartzen diren nerabeak.
 - Substantzia toxikoen mende dauden pertsonak: mendetasuna eragiten duten substantzia toxikoak kontsumitzen dituzten gizarte-sareetan sartzen dira.
 - Adingabeentzako babes-egoitzetan elkarrekin egon diren gazteak.

□ **Gizartetik bakartuta dago.**

Gizabanako bat gizartetik bakartuta dago, baldin eta, egoera hauetakoren bat dela medio, ez badu harreman-sarerik izan: osasuna, norbanakoaren gaitasunak eta abileziak, edo gizarte-abilezien erabilpena.

Ez du bere kabuz erabaki bakartzea. Halaber, bakartzea ez du gizartearen eta norbanakoaren arloko ezein faktore negatibok baldintzatzen.